

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN KANPAINA

MARTXOAK 19 MARZO
2024



misoak.org

MMDDVV

elizbarrutietako misioak
misiones diocesanas vascas

75 AÑOS
URTE
desde 1948

KUTXABANK-BBK _____ ES52 2095 0000 71 2000055574

LABORAL KUTXA _____ ES96 3035 0019 99 0190016957

BIZUM _____ 00897

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin haxe jarri: **HERRIA-PARROKIAREN IZENA** (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko). Adibidez: **Getxo – Andra Mari MMDDVV K.** Info: tlf: 94 401.36.99
mail: misiobi@bizkeliza.org.

“Bide barriak – Nuevos caminos”

Agur bat,

Hona hemen Eleizbarrutietako Misinoen 2024ko eguna. Dakizuenez, gure Eleizbarrutien misino-historiaren 75. Urteurrena ospatu barri dogu. Hirurogeta hamabost urteotan makina bat gauza ikasi dogu eta guzti hori gure Eleizbarrutietan be agertu izan da. Misinoaren ekimena geurea ez dala pentsatuta eta sinistuta, misino-historiako ibilbidean bide egiten jarraitzea da gure erronka.

Gaur egun, erronka barriak, bide barriak..., doguz aurrez aurre eta horixe adierazo gura dogu aurtengo kanpainarako aukeratu dan goiburugaz: **“Bide barriak – Nuevos caminos”**.

Bide barrietara lotzeko deia da, Frantzisko Aita Santuak dinoskunez, iturria begi-bistatik galdu barik: *“Iturrira bueltatu eta Barri Onaren jatorrizko freskotasuna berreskuratzen saiatzen garan bakotxean, bide barriak, jardunbide sortzaileak, adierazpen barriak, zeinu nabarmenagoak, esangura barridun berbak sortzen dira gaurko mundurako. Egia esan, benetako jarduera ebanjelizatzailea, beti da «barria»”*.

Bide barriak zabaltzeko ahalegin honetan, senidetasuna josten jarraitzen dogu eta, Eleiza misiolari lez, gagozan herrialdeen gizarte eta eleiz errealdadea hurbiltzen, emoteko eta jasotzeko prest diran Eleiza gazte horreek ezagutzera emonez. Gure ustez, misino-egitekoak danok konprometitu behar gaitu eta preminazko eta ezinbesteko egiteko bihurtu behar dogu, gure zaintza eta arreta guztia eskainiz.

Hain zuzen be, gure Eleizbarrutian, lagun batek, orain dala hilabete batzuk, Euskal Eleizbarrutietako Misinoen familiagaz bat egin eban, bide barriak urratuz. Eskerrak emon gura deusaguz Jainkoari JAIONE Elorrioko neska gazteagaitik, Filipinetan misiolari da-eta, Berrizko Mesedetako Misiolarien etxean. Espirituaren eta gazte eta helduak hezten jarraitzeko erabakiaren emaitza da Jaioneren misino-bizitza. Bai Jaionek eta bai hezten diharduan beste hainbat lagunek, otoitzetik, heziketatik, bereizketatik eta gure munduaren errealdadearen ezagutzatik Jesusen atzetik jarraitzen dau, Jesus hori behartsuen artean aurkituko dabela sinistuta.

Jesusen deiak suspertu egiten gaitu, ez gaitu axolagabe izten, martxan jarten gaitu. Bideari lotzera garoaz.

Aurton, martxoaren 19an, San Jose egunez -martitzena- ospatuko dogu kanpaina. Jaieguna ez danez, martxoaren 19an, martitzenez, Eleizbarrutietako Misinoen eguna ospatuko dala gogorazoz eizue, mesedez, martxoaren 17ko -domeka- Eukaristietan. Ez dago agindutako kolektarik, bai borondatezkoa; horrgaitik, triptikoak bialduko deusueguz kontu zenbakiak eskuratzeko.

Kanpainarako hainbat lagungarri jasoko dozue: Eleizbarrutietako gotzainen gutuna; Eleizbarrutietako Misinoen egunerako liturgia lagungarriak (liburuxka honetan), kartelak, powerpoint bat ospakizunetarako eta taldeetarako eta Euskal Eleizbarrutietako Misinoen 2023ko oroitza-txostena. Kanpainaren inguruan gehiago jakiteko: www.misioak.org. Eskerrik asko, alde zurretik, zuen laguntasunagaitik.

Felicitas Martin Fernandez

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkarria

EUSKAL ELIZBARRUTIETAKO MISIOEN SAN JOSE KANPAINA DELA ETA

ELIZBARRUTIERAKO MISIOAK, 75 URTE AZKENENGOEN ARTEAN ITXAROPENERAKO ITSASARGI IZATEN

Senide maiteak, misiolari maiteak eta Euskal Elizbarrutietako Misiok erakundeko kolaboratzaileak, Bakea eta Ona zuekin!

Elizaren misio-lana identitarioa da hasieratik. 'Zoazte mundu osoan barrena eta aldarrikatu Ebanjelioa'. Marcosek paperean islatutako Jesusen hitz horiek zeregin hori gogorarazten digute belaunaldi guztiei. Bilboko eta Donostiako gotzainen eta neure izenean, lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet misiolari guztiei, munduko txoko guztietan bizi diren gizon eta emakumeen mesedetan gorputz eta arima aritu izana – maitasunez eta errukiz-. Euskal misiolariak, Ebanjelioaren lekuko nekaezin diren aldetik, muturreko zoritxarrari aurre egiten diotenen zerbitzura ematen dute bizia. Eskerrik asko!

Elizak jendea gehien behar duen lekuetan egon behar du, behetik, txikienetatik eta barrutik begiratzuz, begirada errukitsuagoarekin. Horrek esan nahi du lan egin behar dela justiziaren eta bakearen alde, giza eskubideen alde eta kreazioa zaintzaren alde. Eliza, aldarria entzun eta pertsona pobre eta baztertuenekin konprometitzen denean, Jainkoak munduari dion maitasuna iragartzen ari da. Sinodorako 'Instrumentum laboris'-ek honela adierazten zuen: "Ebanjelioa iragartzeko gaitasuna jartzen da jokoan, gure garaiko gizon eta emakumeekin batera ibiliz haiek dauden tokian, bai eta sufrimendu bereziko baldintzetan bizi diren elizen ondoan bizitako katolikotasuna praktikatzea ere". (5. ZK.)

Behartsuenei eskua zabaltzeko, komunitate pobretuetan aldaketarako eragile izateko eta Kristoren maitasuna entzutean, ekintzan eta ospakizunean gorpuzteko duen gaitasunean datza misioen aberastasuna. Misiolari lanak izen-abizenak dituzten bizitzetan eramaten du Jainkoaren Hitz; pertsonen ongizatearen alde lan egiten du eta bere behar material eta espiritualei heltzen die. Gasteiztik Ekuadorrera abiatu zen lehen misioaren 75 urteak ospatzen ari gara. Gure elizbarrutiko elizak misiolari-lanean emandako zazpi hamarkada horiek markatuta daude eta, horregatik, eskerrak emateko eta gogoratzeko arrazoa da, bere hastapenak zigilatu zituen itxaropen berarekin etorkizunari begiratzuz.

Elizbarrutiko lehen misiolari haiek beren sakrifizioagatik eta dedikazioagatik nabarmendu ziren, beren lurraldetik urrun. Erronka esanguratsuei aurre egin zieten eta erosotasunei uko egin zieten, beren ahultasunaren bidez, betetzen joan diren aukera- eta amets-sorta bat zirenak zerbitzatzeko. Haien orduko presentzia eta egungo presentzia itxaropen-argia dira, Jainkoak bere seme-alaba guztientzat duen maitasunaren adierazpen nabarmena. Jarrai dezagun bidea egiten probidentziaz fidaturik eta noiz, nola eta non Espirituak ematen dizkigula jakinda.

Baina euskal misiolarien lana haien presentzia puntaletik haratago doa. Elizbarruti osoaren zeregina da misioan parte hartzea. Eliza misiolari-irteeran izatea da Frantzisko aita santuaren nahia. "Irteeran dagoen Eliza ekimena hartzen duen, parte hartzen duen, laguntzen duen, fruituak ematen dituen eta

jai egiten duen ikasle-misiolarien elkarte da. Ebanjelioaren poza herri osoarentzat da, ezin da inor alde batera utzi". Horregatik, elizbarruti-elkarte osoak parte hartu behar du Jesus eta bere Berri Ona periferia existentzial eta geografikoetan daudenei eramateko lan honetan.

Giza duintasuna sustatzea eta fedea tokiko komunitateen aberastasun kulturekin lotzen diren espazioak sortzea benetako eta errespetuzko elkarrizketa dira, misiolari-lanerako funtsezkoa dena. Horregatik da garrantzitsua errealitate aldakorretara egokitzen jarraitzea, baina beti Jesus aukera gisa hartuta, Eukaristian presente eta Hitzaren bitartez bizirik. Frantzisko Aita Santuak gogorarazten digu: "iturrira itzultzen eta Ebanjelioaren jatorrizko freskotasuna berreskuratzen saiatzen garen bakoitzean, bide berriak, metodo sortzaileak, beste adierazpide batzuk, zeinu adierazgarriagoak eta gaur egungo mundurako esanahi berrituaz betetako hitzak sortzen dira. Egia esan, benetako ekintza ebanjelizatzaile oro beti da berria".

Euskal misiolariak justizia sozialarekin duten konpromisoa agerikoa da. Komunitateen oinarritzko premiei heltzen dieten proiektuetan ikus dezakegu, hala nola hezkuntzan, lan-sustapenean eta arreta medikoan, nahiz elikagaien eta edateko uraren horniduran. Horrek balio du pertsonen osotasuna emateko eta pobrezia eta marjinaltasunaren muga hausteko gai izan daitezen.

Eliza barruko beste bokazio batzuekin gertatzen den bezala, misiolariak ere beharrezkoak dira. Gaur egun erronka baten aurrean gaude, zentzu horretan. Parrokiak, ikastetxeak, elkarteak, e.a., misio-historiaren 75 urte hauetan sakontzera deituak daude, urrats bat aurrera eman eta beren bizitzaren zati bat azkenengoei eskaintzearen eta inoiz itzaltzen ez den argia izatearen alde apustu egingo duten gizon eta emakume, laiko, abade eta sagaratu berriak bereganatzeko helburuarekin. Zure bizitza pobretuekin partekatzen duzunean, ebanjelizatuago ateratzen zara eta eman duzuna baino gehiago jaso duzula sentitzen duzu.

Erronka globalen garai hauetan, are eta garrantzi handiagoa hartzen dute Elizaren misioek eta misiolarien lan sufrituak. Gaur egun denoi eragiten diguten mehatxuen aurrean, Latinoamerikan, Mexikon edo Asian beren bizitzak ematen dituzten gizon eta emakume horien maitasuna eta elkartasuna oztopo geografiko eta kulturaletatik haratago doaz, eta mundu anaiorrago, gizatiarago eta jainkotiarrago batez hitz egiten digute.

Euskal misiolariak goraiatzea eta babestea zazpi hamarkada hauetan misiolari-lanak izan duen garrantzia aitortzea da, eta Erreinuaren eraikuntzaren aldeko urrats sendoa da. Jarrai dezagun bideak itxaropenez eta anaitasunez argitzen dituen Ebanjelioaren adierazpen bizi hau gogoan izaten. Jesusen Ama eta Elizak munduan duen misioaren irudi den Andre Mariari eskatzen diogu. Nire maitasunarekin eta bedeinkapenarekin, agur besarkada bat!

+ Juan Carlos Elizalde
Gasteizko gotzaina

Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 31n, San Juan Bosco egunean

Bide barriak - Nuevos caminos

Sarrerako oharra

Anai-arrebok, Garizuma-aldiko bosgarren astean gagoz, Pazko-aldian Jesus Berbiztuagaz bat egitea bizi izateko geure burua prestatzeko ibilbidearen azken txanpan.

Gaur, San Jose Eguna, Eleizbarrutietako Misinoen eguna ospatzen dogu, "Bide barriak – Nuevos caminos" goiburuaren haritik. Bide barriak zabaltzeko ahalegin honetan, senidetasuna josten jarraitzen dogu eta, Eleiza misiolari lez, gagozan herrialdeen gizarte eta eleiz errealidadea hurbiltzen, emoteko eta jasotzeko prest diran Eleiza gazte horreek ezagutzera emonez.

Misinoaren ekimena geurea ez dala pentsatuta eta sinistuta, misino-historiako ibilbidean bide egiten jarraitzea da gure erronka.

Misino-egitekoak, gotzainek euren gutunean dinoskuenez, danok konprometitu behar gaitu eta gure ardura eta arreta guztia merezi dauan ezinbesteko eta preminazko egiteko bihurtu behar dogu. Handitu egiten gaitu eta zentzuna emoten deutso Eleizari. Pazkoranzko ibilbidean bidelagun dogun Jesus gure arten izateak emoten deuskun adorea emongo deusagu hasiera ospakizunari.

Damu otoitza

Jesus Jaunak bihotz-barritze eta parkamenaren bidez heriotzatik Jainkoaren Bizira igarotzera deitzen gaitu. Apaltasunez, eskatu daigun gure pekatuen parkamena [Isilunea...]

Erruki, Jauna, Señor, ten piedad. / Kristo erruki, Cristo ten piedad / Erruki Jauna, Señor ten piedad.

Oharra irakurgaiei

1. IRAKURGAIA. *Jainkoak haren aita Daviden errege-aurkia emongo deutso.*

Samuelen bigarren liburutik 2 Sm 7, 4-5a. 12-14a. 16

2. IRAKURGAIA. *Itxaropenean oinarriturik, sinestu egin eban itxaropen guztien kontra.*

San Paulo Apostoluak Erromatarrei egindako gutunetik Erm 4, 13. 16-18. 22

SALMOA. Sal 88, 2-3. 4-5. 27 eta 29

EBANJELIOA. *Josek Jaunaren aingeruak agindu eutsan lez egin eban.*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik Mt 1, 16. 18-21. 24a

Homiliarako ideiak (Goztainek kanpainarako idatzitako gutunetik):

-Eleizbarrutiko Misinoen kanpaina honetan, proposamenen barritasuna nabarmendu gura dogu, baina gure sustraienganako leialtasunari uko egin barik, 'ad gentes' misino-alderdiak zentzun betea dualako gaur egin be.

-Ospakizunaren hasieran esan dogunez, misinoaren ekimena geurea ez dala pentsatuta eta sinistuta, misino-historiako ibilbidean bide egiten jarraitzea da gure erronka. Misinoak gainditu egiten gaitu. Beste Norbait da protagonista. Jainkoa da deitzen dauana, Misinoa orain gala gizaldi asko hasi da-eta. "Ni zuek nago...", "ez eroan ezer biderako...". Gure Eleizbarrutiek abian diran Eleiza misiolari izan behar dabe.

-Eleizak, behartsuen eta baztertuenen garrasia entzun eta euren aldeko konpromisoa hartzen dauanean, Jainkoak munduari deusan maitasuna iragarri egiten dau.

-Sinodorako "Instrumentum laboris" dalakotik hartuta, Gotzainek EEEEMMen egunerako idatzi daben gutunean nabarmendu daben ideia hau jasoko dogu: *"Hauxe da jokoan jarten dana: Barri Ona iragarteko gaitasuna, gure garaiko gizon eta emakumeen bidelagun izanda, eta katolikotasuna garatzea, katolikotasun hori aparteko oinazezko egoeratan bizi diran Eleizen bidelagun izanda biziz"*(5. zenb.).

Jainkoaren herriaren otoitza: Zure Espirituak sendotu egiten gaitu

Danok: **Zure Espirituak sendotu egiten gaitu**

- Eleiza abegitsua gura dogu, maitekorra, ulerkorra eta seme-alabarik kaltetuenen zaintzailea. Horregaitik dinotsugu: **Zure Espirituak sendotu egiten gaitu**
- Entzunez, ekinez, konprometituz..., Jainkoaren maitasuna gauzatzeko gai izan gaitezala. Horregaitik dinotsugu: **Zure Espirituak sendotu egiten gaitu**
- Aita Santuak dinoskunez, arrazakeriak, mugek, esplotazioak, diru-goseak atalka garatzen diharduan munduko gerra eragiten ari dira. Atara gaitezala geure baitatik eta egin daigun gerra eta bidegabeko egoera horreen biktimen alde. Horregaitik dinotsugu: **Zure Espirituak sendotu egiten gaitu**
- Misiolari guztien senidetasuna dakargu gure mahaira, lurreko pobreenen aldeko hautuari leial eutsi deieen eskatuz. Horregaitik dinotsugu: **Zure Espirituak sendotu egiten gaitu**

Agurra

San Jose egunez, kristau alkarte lez batu gara eta geure misino-konpromisoa gogora ekarri dogu. San Josek uste osoa jarri eban Jainkoarengan, honen eskuetan jarri eban bere burua.

Gure aldetik, misinoaren etorkizuna Jainkoaren eskuetan jarriko dogu, adore emon deigun eguneroko lanean eta misinoan jarduteko pertsonak deitzen jarraitu daian. Jarraitu daigun, beraz, gure parrokia eta pastoral barrutietan fedean sendotu egiten gaituan misino-bizitza sustatzen.

Esker ona

Elizbarrutietako Misioek aitorpena eta esker ona adierazi nahi die, dohaintzak egin eta legatuak uzten dituzten pertsonen egundoko eskuzabaltzauna, urtez urte misioen aldeko konpromisoa erakusten baitute. Eskerrik asko!!

2023an, 40 egitasmotan lagundu zen. Hain zuzen ere, hainbat arlotan –heziketa, osasuna, gizarte garapena, Giza Eskubideak, misiolarien parroketako egitasmoak...- garatzen diren egitasmoak dira. 2023ko jardueren oroitza-txostenean aurkituko duzue informazio gehiago (www.misioak.org)

KANPAINAKO EKITALDIEN EGUTEGIA

Data	Ekitaldia	Lekua	Ordua
Martxoak, 9 Larunbata	Garizumako hitzaldi misiolaria Isabel Matilla , misiolaria	Balmasedako parrokian	Eucaristia 19etan 19:30etan
Martxoak, 12 Asteartea	Testigantza: Paulino Ordax , misiolaria	Gernikako parrokian	19:30etan
Martxoak, 13 Asteazkena	-Kafe-solasaldia misiolariekin: Paulino Ordax, Isabel Matilla, Juan Mari Bautista eta Joseba Bakaikoa eta -Hitzaldia: Manu Osa Afrikako misiolarien probintzia delegatua Espainan	Barrian -Plaza Nueva, 4 – 1 ^a	17:30etatik 18,20etara 18:30etatik 20:30etara
Martxoak, 19 Asteartea	Testigantza: Juan Mari Bautista misiolaria	Ermuako parrokian	19.00etan
Martxoak, 23-24 Larunbata ta igandea	Testigantza: Joseba Bakaikoa eta Isabel Matilla Ipar- hego kurtsoko erretiroan	Larrabetzun	
Apirilak, 9 Asteartea	Testigantza: Joseba Bakaikoa , misiolaria	Otxarkoagako parrokian	19:00 etan

Banku-eta kutxa-zenbakiak gogoratzen deusueguz:

KUTXABANK-BBK _____ **ES52 2095 0000 71 2000055574**
LABORAL KUTXA _____ **ES96 3035 0019 99 0190016957**
BIZUM _____ **00897**

MESEDEZ: Sarrera egitean, lehenik eta behin hauxe jarri: **HERRIA - PARROKIAREN IZENA** (izen bereko parrokiak bereizi ahal izateko)

Misiolari guztien erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!!**